

IRAGARKIA

171. ALDIZKARIA - 2024ko abuztuaren 22a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK BAZTAN

Kirol-jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia 2024rako. Laburpena

BDNS (Identif.): 779048.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean aurki daiteke (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/779048>).

Baztango Udalak, 2024ko abuztuaren 1eko 2024/373 ebazpenaren bidez, onetsi zituen 2024an Baztango kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko deialdi publikoa arautzen duten oinarriak.

Lehendabizikoa.–Onuradunak.

Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek hartzen ahal dituzte oinarri hauen xede diren dirulaguntzak.

Bigarrena.–Xedea.

Oinarri hauen helburua da Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzera zuzendutako dirulaguntzak norgehiagoka emateko araubidea jartzea.

Hirugarrena.–Oinarri arautzaileak.

<http://www.baztan.eus>

Laugarrena.–Eskabideak aurkezteko epea.

Eskaerak egiteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da. Eskabideak ezarritako epez kanpo aurkezteak onartuak ez izatea ekarriko du.

Dirulaguntzaren eskaerak eta agiriak Baztango Udaleko Erregistroan aurkeztuko dira erregistro elektronikoko bidez.

Elizondon, 2024ko abuztuaren 1ean.–Alkatea, Fernando Anbustegi Goñi.

Iragarkiaren kodea: L2411799